

anaitasuna

ZEMENDIA (11) 1966 XIV Urtea Zenb. 141 Dep. L. SS. 1092-1959 Zuzendaritza: Joan Azurmendi (Bermeo-n). Arantzazuko Irarkolan

euskal liburu ta diskoen bigarren azoka durangon

Gerediaga-koeri eskerrak

Urrillaren 30-31 ta azillaren 1'ean, Euskal Liburu ta Diskoen Azoka ospatu gendun Durango'n.

Gerediaga alkartearekin zorretan gagoz euskaldunok, euskeraren —ta Euskalerriarren— alde darabilen bierragaitik. Aurton be, eurek izan dire Azokaren antolatzaileak, ta ez daigula aztu Azokaren oitura au eurek sortu ebela, igaz, gure artean. Mil'esker.

Durangoko Santa Maria-ren eleizpean, 700 inguru liburu ta 200 bat disko egozan mailetan, jendeak ikus edo eros egiezan.

Ez dakit-eta, ezin dot esan

nik orain zein izan zan libururik salduena aurton. Interesgarria litzake jakitea. Igaz, iztegi, gramatika ta euskera-ikasbide ta olakoak ziran jendeak geien eskatzen ebezenak. Aurten be, seguru, ortik joango zan eskamena. JAKIN taldeak beintzat Joseba Intxausti'ren "Euskal-Aditza" saldu eban geien. (Ostera, "Europa" ta baita "Filosofiaren Kondaira", igaz).

Pollitto saldu zala uste dot. Baiña onek ez deust niri ardura, batez be benepen. Nire ustez, Azoka bat jeneroa erakusteko da, jendeak ikus daien. Ta ortan ikusi dot batez be diferentzia Durango'ko ta beste lekuetako Azokaen artean. Beste ifun baiño ardura geiagogaz, interesago,

nabaritu dot jendea Durango-n. Bardin igaz ta aurton. Ta au pozgarria da.

Bertsolari ta abeslariak

Lenengo eguna izan zan lortuena. Bertsolariak edo abeslariak zirala-ta, bete betean egoan eleizpea. Bizkai'ko bertsolarien txapelketa ospatu zan arratsaldean, ta Lopategi dogu barriro txapeldun; ta bigarren, Mugartegui.

Euskal abestiak be izan genduzan. An entzun gendun gaurko euskal kantuaren mogimendu barria ta bulartsia. Abestiera onek indarra artzen badau gure artean, eztogu ifloren aurrean lotsatu bearrrik. Arrituta geratu nintzan. Zorionak, Benito Lertxundi, Mari Lurdes Iriondo, Julian Lekuona, Mikel Laboa.

Egunkariak ifioenez, esitoa izan zan Durango'ko Azoka, bai jendearen aldetik, bai saltzearenetik.

Bai ete?

Dagozan liburuak erakutsi dira, jendeak ikusi dauz, askoak erosi dabez. Zer geiago eskatu leikio Azoka bateri? Azoka bateri ezer be ez geiago.

Baiña bai euskaldunori! Aitortu daigun garbi: ez daukogu euskal konzientziarik, erri-konzientzia sendorik, kultura-konzientziarik. Errezenena jöten dogu beti: folklorea edo... "gora gutarrak" batzuk esatera... ta orrekin. pott. Kontuz: ez difiot olakorik bear eztanik. Baiña ez aztu: euskaldun lez aurrea jarraitu gura badogu, sendotu daigun izkuntza, egin daigun kultura. Nik euskeraren salbabidea, ikastoletan ta kulturaren ikusten dot. "Jakintzak askatuko gaitu": jarri eben Mondragoe'ko Azokaren izenpuru.

Euskal liburuen Azoka bat

ikustean, batzuk adurretan geratzen dira: "len ez eikean olakorik egin!". Ta pozik. Niri ostera, aldrebes pasetan jat: anketara etorri jat arima Azoka batzuetan. Zergaitik?

Begiak daukotazalako. Ze liburu dakarre saltzailleak? 700'dik gora liburu batuten dira Azoka bakoitxean. Ba da libururik: pentsa leiteke. Baiña liburu orreetatik 300'era ez dira allegetan euskerazkoak. Eta orixe da. Ta 300 oreetatik zenbat ete dira baliozkoak benetan!

Sentimentuarekin bizi gara.

Goazen aurrera. Ta jenteak zer erosten da geiago ta pozago: euskerazko ala erderazko liburu? Ez daukat zenbakirik, baiña zenbakiak bear ete dira ba itaun oneri erantzuteko? Ezetz esango neuke. Euskerazkoak baiño Euskalerriri buruzko liburuak naiago dauz gaur jenteak, nik uste. Sentimentuarekin bizi gara: zer izan garan jakin gura dogu. Ez jaku ardura, antza, zer garan ta zer izan gaithekezan. Gatzago da, izan be. Burgesiak jota gagoz: ezin leiteke uka.

Jakintza, kultura, minorien-gandik dator beti: jakifia da ori. Ta minori pozgarri batzuk ba daukoguz Euskalerrian, Gipuzko aldetik, batez be. Ta orreek bai, poza emoten deuste orreek. Alegindu gaitazan euskal kultura zabaltzen, edatzen. Zabaltzenago ta euskaldunago.

Onekin danakin zera esan gura izan dot: Azokak ederto dagozala, ta Durango'koa ondoen. Alan da be, garaipena ta esitoa lau aizeetara aldarrikatuz ez dogula on askorik eglten, gaurko gure egoera ikusi ta aztertuz baiño. Ta orretara, gaur gure euskal egoera ez dala elburu bat, ta bai asiera bat, asiera.

joan mari torrealday.



GEREDIAGA-KO TALDEKOAK ANTOLATU TA DURANGO-KO AIUNTAMENTUAK ETA BIZKAI-KO DIPUTAZINOAK BABESTUTA